



Proiektuetarako jarduerak | 2. Blokea: Edukiak sortzea

Nolakoa izanen litzateke eTwinnilandia?



Lehen Hezkuntza

9-12 urte



Maila

Oinarrizkoa



Denboralizazioa

4-5 saio



Kideak

2-4 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

eTwinning izeneko alegiazko lurralde batetik abiatuta, herritarren bizimodua hobetzeko ideien txapelketa bat antolatzen da. Gure ikasleek nazionalitate anitzeko taldeak sortuz parte hartuko dute eta lurraldea hainbat alorretan (kultura, kirola, monumentuak, artea, turismoa, hiriguneak, literatura, etab.) hobetzeko ikertu eta ideiak proposatuko dituzte. Horiek guztiak “Better ideas for better life” izeneko liburu kolaboratibo batean bilduko dira.

JARDUERAREN XEDEA

Zure lurralde ideala lortzeko ideiak eta proposamenak jasoko dituen liburu kolaboratiboa sortzea.

JARDUERAREN GARAPENA



1. Fasea: Prestaketa



Beharrezkoa: Ordenagailuak ikertzeko eta ikasleek taldean lan egitea.

1. urratsa:

Xedea amaieran ideien liburu bat sortzea da. Adibidez, kultura, kirola, kaleak, monumentuak, turismoa, gizalegezko portaera arauak, proiektuaren gaiari buruzko zerbait, literatura, hiriguneak eta ikastetxe bat nolakoa izan beharko litzatekeen.



2. urratsa:

Ikasleak nazioarteko taldeetan antolatzen dira eta bakoitzari gai bat garatzea egokituko zaio. Ikasleak TwinSpaceko foroaren bidez koordinatuko dira eta eztabaidatzeko txata erabiliko dute.



3. urratsa:



Irakasleek talde bakoitzarentzat horma-irudi birtual bat sortuko dute. Bertan, ideiak eta marrazkiak jarriko dituzte.

2. Fasea: Praktikan jartzea

4. urratsa:

Ikasleak ideiak proposatzen, marrazkiak eta kartelak egiten, arauak sortzen eta haien horma-irudietan, Twinspaceko azpi-orrialde batean, gune berriak sortzen hasiko dira.



5. urratsa:

Azkenik, gai bakoitzeko ideiarik onenak aukeratuko dira eta proposamenak jasotzen dituen dokumentu bat sortuko da, Power Pointen, DOCen edo Worden.

3. Fasea: Datuak biltzea eta jakitera ematea

6. urratsa:

Ikasle guztiek material komun batean parte har dezaten, jardueraren azala sortzeko lehiaketa bat egin daiteke.



7. urratsa:

Behin betiko dokumentua euskarri digitalera pasatuko da proposatutako tresnaren baten bidez eta proiektuaren TwinSpacearen barruan lotuko da. Prozesuaren argazkiak atera eta ikasleen lanaren kapturak egin, ondoren proiektuaren TwinSpacean lotzeko. Kide guztiek proiektuaren Egunerokoan jardueraren garapenari buruzko komentarioak egitea oso interesgarria da.



PRODUKTUA(K)/ AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)

Mundu hobe bat sortzeko ideien liburua, ikasleen lana agertzen duten horma-irudi kolaboratiboak, prozesuari buruzko aurkezpenak.

TWINSPECEKO TRESNAK/ KANPOKO 2.0 TRESNAK

- **Horma-irudi birtuala:** Padlet edo Linoit. Ideiak online proposatzeko eta online kolaboratzeko tresna. <https://es.padlet.com/>
- **Proposamenak bozkatzeko:** Freeonlinesurveys, inkestak eta bozketak egiteko webgunea. Marrazkiak bozkatu daitezke. <https://freeonlinesurveys.com/#/>
- **Informazioa aurkezteko:** Word edo PowerPoint erabil daiteke. Bertan ideiarik onenak eta behin betiko proposamenak jasoko dira. Ondoren, euskarri digitalera bihurtzeko erabil daiteke: ISSUU , aurkezpenak euskarri digitalera bihurtzeko tresna. <https://issuu.com/> edo Slideshare, PDF dokumentu bat euskarri digitalera bihurtzeko tresna. <https://es.slideshare.net/>
- **Taldean lan egiteko:** Google docs, talde ezberdinen artean ideiak proposatzeko.
- **Komunikatzeko eta koordinatzeko:** TwinSpaceko foroak eta txata.